



UNE taldeari 2004ko udan eman zitzaion hasiera, ez, ordea, izena. Taldean **Bizkaiko** eta **Gipuzkoako** jendea erdi eta erdi, baina entsegu lokala Bilbon kokatzea erabaki zuten. UNE oraindik izenik gabe zegoela, talde berri batean sartzeko proposamena egin zioten Bizkaiko taldekideek **Aitor Uriarte** (Latzen, Sen) abeslariari. Ideia ontzat jo eta, eskarmentu handiko musikariak direnez, ez zuten behar izan denbora luzerik lehen maketa grabatzeko Ondarroako Santos anaien estudioan 2005eko otsailan. Maketa ekoitzi ondoren etorriko zen taldeari UNE izena ematea eta taldea egonkortzea. **Une Nare Eza** izenaren siglekin osatu da UNE (memento trankilen edo lasaien eza). Lehen diskoa (Une Nare Eza) Oihuka diskoetxeak argitaratu zuen 2006an eta Kauta taldearekin batera Euskal Herriko areto eta toki askotan entzun ahal izan zen.

UNE taldearen bigarren diskoaren grabaketa Santos Records estudioan **Santos** anaiak eta **Ander Shinovak** egin dute 2008ko irailean, nahasketak Bartzelonan egin dituzte **Epifita Labs**-eko **Oswaldo Terronesek** eta **Ruben Gonzalezek** (lehen diskoan UNEkidea zen eta gitarra jo zuen) urria osoan zehar, eta mastering lanetan **Alexis Psaroudakis** egon da Bartzelonako "Hit Makers" estudioan. Musika eta letra guztiak UNE taldeak egin ditu, letretan baino ez dute laguntzailerik izan. "Itsas zabal haunditan" eta "Dabilen arima" letra **Gorka Lazkanok** (Latzen) egin du, "Kolorezko kamaleoiak" letraren idea **Josu Igartuarena** da.

UNE taldearen bigarren diskoa "Hegalik gabe hegan" izenburua du. Rocka, metala, rocka eta melodia izugarriak. Rock doinuak metalaren gainetik daude, nahiz eta abestien zama handia den. UNE taldea bi muturretan dago, alde batetik, abesti indartsuak eta gogorrak, eta bestetik, kantu melodikoagoak eta lasaiagoak. Baina beti melodiaren indarra nabari daiteke. UNE taldea melodien indarra da. UNE taldearen bigarren diskoa kontrasteetan oinarri tuta dago: orain zuria, gero beltza; orain malenkonia, gero alaitasuna; orain abiadura, gero poliki poliki. UNE taldea kontrasteen indarra da. Latzen taldearen azken kontzertuak eman ondoren, Aitor Uriarte indartsu dator, horrek esan nahi du UNE taldea boteretsu eta dinamikaz blai datorrigula. UNE taldearen grina hori zuzenekoetan nabarituko dugu.

Lehen diskotik bigarrenera UNE taldeak bere musikaltasunak aldatetarik izan ditu. Zer nolako hausnarketa egiten duzue?

Diskoaren azken emaitza ikusita, linealago eta eskema batzuen ildoan izan zitekeen lehenengo diskoarekin alderatuz, UNE taldearen esentzia galdu gabe, muturrekoagoa bezala definituko nuke: inongo konplexurik gabe, kantu gogorragoak aurkituko ditugu kantu suabegoekin tartekatuz, kantu intimista eta ilunak kantu alaituagoekin, kantu azkarragoak tempo erdiko kantu boteretsuekin... Soinuari dagokionez, kantu bakoitza matxardekin hartua dago eta tentu handiz, kantuak berak iradoki duenaren arian; beti, kantuaren naturaltasuna mantenduz. Orokorrean, dinamismo horrek entzunketa erakargarriagoa egin dezake. Zuzenekoetan bi diskoak izugarri ondo konplementatuko dira errepertorioa askotarikoa eta aberatsagoa osatuz.

UNE taldearen bigarren diskoa "Hegalik gabe hegan", nola joan da?

UNE taldea finkatuagoa dagoela esan daiteke; musikalki, askoz hobeto ezagutzen dugu elkar eta lan egiteko dinamika eraginkorragoa daramagu. Nire ustez, azken urte hau zerbait mugitua izan den arren Latzen taldearen agur-bira dela medio, partaide guztion batuketa izan da ilusiorik falta ez zaion proiektu hau aurrera eramatea ahalbidetu duena.

Prozezuaren arlo teknikoei dagokionez, bigarren diskoan profesional handiek hartu dute parte, bai grabaketan (Santos Records estudioan Santos anaiak eta Ander Shinova), bai Bartzelonan egin ditugun nahasketetan (Epifita Labs-eko Oswaldo Terrones eta Ruben Gonzalez) eta mastering lanetan (Alexis Psaroudakis Bartzelonako "Hit Makers" estudioan)... Hein handi batean eurei zor diegu guretzat hain pozgarria den emaitza.

Entzuleari begira, UNE taldeak bere esparrua finkatzea lortu al du?

Batek daki, oraintxe nahi duguna lan guztia ahalik eta ongien bukatzea da, lan ordu eta lan egun asko izan baitira, lehendabizi emaitzak gu ase gaitzala eta momentuz era bat ase gara. Aurreko biran ezagutu gintuen jendearengan ikusmina somatu dezakegu, ezuste atsegin bat eskaini nahi diegu eta, zergatik ez, jende gehiagoren belarrietara heldu. Zuzenekoak osatzeko gaur egungo hedabideak asko zaintzen ditugu, taldearen nondik norakoak zabaltzeko eta informazioa oparora izan dadin, adibide moduan, www.unekin.com eta www.myspace.com/unekin, horrela jendearekin kontaktu iraunkorra mantenduz.

UNE taldea, musika ahotsaren menpera edo ahotsa musikaren esanetara? Edo orekaren bila zoazte?

Gauza guztietan legez, musika talde baten funtzionamenduan ere oreka ezin bestekoa da, pertsona bezala ditugun hartu-emanetan edota musikatik etorri daitezkeen erantzukizunetan. Gure kasuan, bakoitzak bere zatitxo ematen du guztion baturak egiten duelarik gaur egungo UNE (Une Nare Eza). Egia da kantu batetik lehenengo datorkiguna ahotsa dela, baina gure kasuan, kantuak egiterakoan, normalean instrumentuak joan ohi dira norabide bat markatuz, eta hor Roberrek zer esan handia du. Musika instrumental horrek ahotsaren melodia eta interpretazioa sujeritzen du; gero, guztion artean azken detaile eta ukituak zehazteko, batzuetan kantu baten ezinbesteko zatiak bilakatzen diren detaileak.

Aitor Uriarte: ahotsa

Rober Garzia: gitarra


Xabi Oraa de Zumarraga: bateria

Karmelo Aretxaga "Mel": baxua

ritxi aizpuru (2008ko abenduaren 1ean)



UNE
HEGALIK GABE HEGAN



baga-biga musika ideiak
telef. 618 072 076 /026
www.baga-biga.com / info@baga-biga.com